

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2487

*AGINDUA, 2025eko maiatzaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, Gernika-Lumoko (Bizkaia) «Seber Altube Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.*

Gernika-Lumoko (Bizkaia) «Seber Altube Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren entitate titularrak hasarazitako espedienteaz aztertu da. Eskararen helburua baimena eskatzea da Haur Hezkuntzako 1. zikloko 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako unitate bat 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako unitate bihurtzeko.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin dituzte txostenak.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa (apirilaren 9ko BOE), ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa, zeina otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuak aldatu baitzuen (martxoaren 12ko BOE); 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa (azaroaren 19ko EHAA), 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den ikastetxeari baimena ematen zaio, 2025-2026 ikasturtetik aurrera, Haur Hezkuntzako 1. zikloko 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako unitate bat 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako unitate bihurtzeko:

Ikastetxearen kodeak: 014527 (EAE) eta 48005470 (unibertsala).

Izen generikoa: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Seber Altube Ikastola».

Titularra: Gernika, Sociedad Cooperativa.

Helbidea: Zearreta, z.g.

Udalerria: Gernika-Lumo.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena: Haur Hezkuntzako 1. zikloko 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako unitate bat 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako unitate bihurtzea.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 6 unitate, ikaspostu hauekin:

- Unitate bat 0 eta 1 urte bitarteko haurrentzat, 8 ikasposturekin.

- Hiru unitate 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzat, 13 ikasposturekin.
- Bi unitate 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzat, 18 ikasposturekin.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikasposturekin.
- Lehen Hezkuntza: 12 unitate, 300 ikasposturekin.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 8 unitate, 240 ikasposturekin.
- Hezkuntza Berezia: 3 gela ireki.

2. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan jasota dagoen baimena emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 27a.

Hezkuntzako sailburua,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.